

SARRERA

EUSKO IKASKUNTZA: ZIENTZIA KOMUNITATE BATEN ERAKETA

Zientzia elkarte baten zuzendarien isla biografikoa taxutzen duen liburuaren sarreran, batez ere, elkarte horrek komunitate akademiko bat eraikitzeke bokazioa agertzen duenean, bidezkoa dirudi, lehenik eta behin, gogoeta egitea, bai euskaldunen tradizio intelektualaz, bai eta euskaldunek erakundeak antolatzeke duten gaitasunaz ere. Etorkizuneko gizarteek ezagupen eta informazioaren gizarteak izatea izango dute ezaugarri. Alabaina, ezagupenaren sorrera ez da soilki unibertsitateetan gertatzen, sare zabal batean baizik, hau da, zentro arautuak, zentro ez arautuak, zentro askeak, enpresak... dituen sarean. Hori dela eta, ezagupenaren produkzioan gertatzen den gizarte antolakuntza, hala nola zientzia eta teknologiaren sistemak, bai eta kultura zientifikoa sortu asmoz mamituriko bizkortze programak ere, gaur egungo gizartearen ondorio dira, euskal gizartaren ondorio, alegia. Testuinguru honetan, iduri luke zenbait balio erantsi sortzera bideraturik beharko lukeela egon, Eusko Ikaskuntza bezalako ikerketa eta zientzia elkarte batek, bai euskal gizarte eta bai gizarte unibertsala moldatzen dituzten ondasun eta elementuei dagokienez.

Zientziaren ahalmenari dagokionez, oroitu beharra dago autonomia eta autogobernuaren 18 urteak ez direla nahikoa izan zientziaren gaineko konpetentziak Euskal Autonomia Erkidegora eta Nafarroako Komunitate Autonomora bideratzeko. Eta etorkizunak ere ez du ematen askoz hobea denik. Estatu zentralaren boterea, eskualde edo nazio-estatuaren aurrean, ez dirudi, oraingoz behintzat, zientziaren alorra banatu asmoz dabilenik. Guztiarekin ere, Euskal gobernuak eta Nafarroako gobernuak teknologiarako eta ikerketarako zentruak sustatzen jardun dute. Zientziaren eta zientzia kulturaren eragile egokia datekeen egitaraua mamitzeko gai izan ote den, horra nire zalantza.

Gaia mundu mailako terminoetan planteatuz gero (nahiago dut mundiala ezen ez globala, zeren eta lehenak tokiko formak badirela onartzen baitu, bigarren kontzeptuak tokikoa asimilatzen jotzen duen bitartean), premiazkoa dugu tokiko fenomeno bat aztertzea, munduko pentsamendua bistatik galdu gabe. Eusko Ikaskuntza XX. mendeko euskaldunen historia intelektualaren zientzia erakunde berezietako bat da, eta nire ustez XXI. mendean ere hala izaten jarraituko du.

Euskalduna herri antiintelektual ezjakina?

Aztertzaile batek euskaldunetz diharduenean, mendiko biztanleetan pentsatzen ari dela ematen du. Baina badira kostaldeko euskaldunak ere, itsasgizonak, lanak hartaturik munduari irekiak daudenak, euskaldun hiritarrak, mendiko euskaldunak. Euskal Herrian hainbat tradizio intelektual eraiki eta mamitu egin dira. Oñatiko Unibertsitatearen sorrera (1540) eta teologia kolegioaz hornituriko Iratxeoarena (1539), latinitate eskolak, Bergarako Seminario Patriótico Bascongadoaren sorrera (1776) eta Oñatiko Unibertsitatearen birsorrera (1777), Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Batzar Nagusiek finantzaturik zituzten hiru katedrekin batera: horra gertakari instituzional gailenatariko batzuk¹.

1. *Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua. Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza sarean*. Gasteiz, 1993. Ikus bereziki LOPEZ ATXURRA, R., "Cultura, educación y estudios vascos: Hitos para la recuperación de nuestra memoria histórica (cronología)" 55-81, orr.

Guztiarekin ere, XIX. mendean Oñatiko Unibertsitateak ez zuen goi hezkuntzarako erakunde gisa sendotzerik lortu. Eparterok 1842an kendu zuen eta azkenik,aldi labur baten ondoren, berriro itxiarazi zuen gobernu zentralak 1901ean. Nolanahi ere, eskola espezializatuak sortu ziren: Nautika, Merkataritza, bigarren irakaskuntzako institutuak, Bilboko Ingeniari Eskola eta Deustuko Unibertsitatean irakaskuntza katolikoaren Goi Ikastetxea.

Oñatiko Unibertsitatearen oroimenak, alabaina, bizirik iraun zuen eta 1918an, unibertsitate hartako gertalekuan Euskal Herriko lau Diputazioek bultzaturiko bilkuran, mende honetako lehen herenean erakunde akademiko eta intelektualik garrantzitsuena sortu zuten. Oroitu beharra dago aurreko urtean, 1917an, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hiru Diputazioek elkarren arteko "Konferentzian" bildurik, eta Nafarrokao foru diputatu batzuk bertan zeudela, autogobernurako estatutu politikoa eskatu ziotela gobernu zentralari, jadanik bazuten zerga eta administrazio autonomia sendotzeko eta bestelako alorretara zabaldu ahal izateko.

Eusko Ikaskuntzaren sorrera: Angel Apraiz

Euskal zientzia komunitatearen egituratze mota baten sorrera-akta ekarri zuen Eusko Ikaskuntzen lehen Kongresuak (1918ko iraila). 1852az geroztik, A. Abbadiaren ekimenez, Lore Jokoak, olerki lehiaketak eta euskal jaiak etorri ziren ondoz ondo. 1840tik kultura aldizkariak gero eta hedapen handiagoa lortu zuten zeren eta hirietako beste zenbait gizarte sektoretan halako prentsa kontsumitzen hasten baitira. Iparraldeko Euskal Herrian, Eskualtzaleen Biltzarrak (1901) euskaltzale eta eurskarologo talde hauta egituratu zuen.

Baina 1918an kontua ez zen euskaldunei buruzko azterlan etnikoak bultzatzea edo begiratzea. Euskal hiri egitura tradizionala gero eta gehiago gaintitzen ari zen gizarte moderno baten



Oñati, 1918. Eusko Ikaskuntzen Lehen Kongresua. Agintarien aurrekua (Kutxa Fototeka).

inguruko ikerketa multzoa hartzen zuen bere baitan Eusko Ikaskuntzen kategoriak, Institut d'Estudis Catalans hartan inspiratua zelarik. Gizarte berriak kultura eta aisia mota berria praktikatzen eta eskatzen zuten, jakintzaren paradigma berrituetan oinarrituriko kontuak eta, hortaz, euskal intelektual mota berria, diletantismo amateurretik urrun. Bilboko *Hermes* bezalako kultura aldizkariak euskaltzaletasun berritu bat definitzen lagundu zuten. Ez zen ustekabea A. Apraizen hitzaldia Bilbon antolatua izatea, ez eta haren proposamenek nahi zen arrakasta lortzea. Eusko Ikaskuntzen Kongresua, garbi dago, 1876az geroztikako euskal berpizkundeaz onuradun gertatu zen, baina baita paradigmaz aldatu ere. Unibertsitate giroan lortu eta garatu prestakuntzaz hornituriko pertsona ospetsu berrien belaunaldi batek –Arturo Campión, Eusko Ikaskuntzako ohorezko lehendakariak eta Julian Elorza, lehen lehendakariak Oñatiko unibertsitatean ikasi zuten–, masa gizartearen, industria gizartearen kezka berriak eta arazo propioak zekartzen. Erakunde mota berri bat izaera akademiko nabarmena izango zukeena moldatu beharra zegoen eta modu horretara abiatu zen Eusko Ikaskuntza antolatzen, Eusko Ikaskuntzen Lehen Kongresua amaitu eta berehala, hain zuzen ere, Lehen Kongresu hartan abiatutako eginkizunei jarraipen-egitura bat ematearren. Aldi horri dagokionez, idazkari nagusiaren kargua jaso zuen Angel Apraizen, Bartzelonako Unibertsitateko Artearen Historiako katedradunaren nortasuna nabarmendu beharra dago. 1918ko urtarrilaren 5ean, hitzaldi bat eman zuen Apraizek Bilbon, Bizkaiko Kultura Batzordeak antolaturik eta euskal unibertsitatearen inguruan; hitzaldiak erreibindikazio zehatz bat azaltzeko balio izan zuen autogobernuaren aldeko giro berri hartan. Izan ere, Bizkaian, euskal abertzaleek, Ramón de la Sota y Aburto buru zutela, Bizkaiko Diputazioko lehendakariak eskuratua zuten lehen aldiz eta euskal kutsu berriko programa gauzatzeko prest zeuden. Zenbait egun geroago, urtarrilaren 18an, Ladislao Zavala integrista, Gipuzkoako Diputazioko lehendakariak Eusko Ikaskuntzen Kongresua Oñatin antolatzea proposatu zuen eta ekimen hori Diputazioak onartu egin zion. Eta berehala, Euskal Herriko lau Diputazioek elkar aditurik, Kongresuaren ideia



Iruñea, 1920. Eusko Ikaskuntzen II. Kongresua. Alfonso XIII.a erregea agintari zibilak eta elizakoak aldamenean dituela.

bultzatu zuten, aldiro-aldiro egin ohi zituzten "Konferentzia" izeneko bilkura arrunten lankidetzaz esparruan. Hori dela eta, bai Kongresuaren inaugurazio ekitaldirako eta bai handik sortu zen erakundearen antolakuntzarako, Iparraldeko, hau da, frantses Estatuko Euskal Herriko, zenbait pertsona gailen gonbidatu zituzten.

Eusko Ikaskuntza elkarte berriaren helburu nagusiak hauek ziren:

- 1.- Euskal Herriaren kultura eta zientzia maila jasotzea
- 2.- Euskal Unibertsitatea sortzea
- 3.- Zerga eta administrazio autonomia osatu beharko lukeen autonomia politikoaren oinarriak zehaztea.

Eusko Ikaskuntzaren bokazioa unibertsalista izan zen. Julio Urquijok 1907tik Parisen eta Donostian batera argitaratzen zuen *Revista Internacional de los Estudios Vascos* aldizkaria eman zion Elri 1921ean.

Ikastaroak, egitasmoak, argitaraturiko aldizkariak Elkartearen bizitasunaren adierazgarri dira. Politikoak zuzendaritza organoetan izateak ez zen eragozpena gertatu Elkartearen zuzendaritza ikertzaileek berek eramateko.

1928an argitaraturiko dokumentuak Elkartearen memorandum bat eskaini zuen, "goi kulturari" zein "herri kulturari" egindako ekarpenarekin.

1936ko gerra zibilak ezaugarri bereziak izan zituen Euskal Herrian eta Eusko Ikaskuntza alde-rik alde jota utzi zuen. Oroitu beharra dago Eusko Ikaskuntzako garaiko lehendakaria Julian Elorza politikoa tradizionalista zela. Beste batzuk, hala nola Julio Urquijo, tradizionalismoan edo euskal karlismoan kokatzen ziren, hau da, txinada militarri lagundu zion gizarte taldeko partaide ziren. Baina Eln askotariko jendea zegoen: errepublikanoak, abertzaleak, liberalak, espainiar monarkikoak, sozialistak eta beste. Bitxia zera da, karlistek, gerra irabazi ondoren, Elkarteari jarraipena emateari uko egitea. Euskaltzaindiaren sorrera, aldiz, 1918ko Kongresuan Elk proposatua izanik, erakunde autonomo gisa eratu zen 1919an Eusko Ikaskuntzaren egitura instituzionaletik at, eta ez zuen etenik sortu Resurreccion Maria de Azkuek, Euskaltzaindiko burua alegia, kontrako giro batean, aurrera egiten jakin zuelako.

Dena den, Elen herentzia inmaterial eta intelektualaren parte handi batek Iparraldeko Euskal Herrian jarraitu zuen. Jose Migel Barandiaran euskal jakintzaren irudi gailen gisa agertzen hasi zen eta 1947an *Gernika Eusko Jakintza. Revue des Etudes Basques*. kaleratzen hasi zen haren zuzendaritzapean. Hasierako egitasmoan aldizkariak honako hau adierazten zuen: "*Las escuelas, los círculos de estudios, la sociedad Eusko Ikaskuntza, los periódicos y revistas que eran vehículos de la cultura vasca y órganos de expresión de los estudios e investigaciones vascas, fueron condenados a morir. No pocos de sus artífices y animadores murieron también. Y una gran parte de los que sobrevivieron a la catástrofe, fueron dispersados por el mundo, lejos de su patria. (...) Otros empiezan ahora a reanudar sus labores interrumpidas por los azares de la pasada década*". 1948ko irailean Miarritzen antolaturiko Eusko Ikaskuntzen VII. Kongresua ikertzaileen artikulazioa egiten saiatu zen eta zientzia edukiaren zein erreibindikazio demokratikoen Kongresua izan zen. Eusko Ikaskuntzen VIII. Kongresua 1954an egin zen Baionako Euskal Museon.

Baina urtebete lehenago, 1953an, Jose Migel Barandiaran Gipuzkoara itzuli zen eta Aranzadi Zientzi Elkartearekin egin zuen lotura. Eusko Ikaskuntzako beste zenbait kidek Instituto Americano de Estudios Vascos delakoa sortu zuten.

Eusko Ikaskuntza, Ikerketa gunea: Jose Migel Barandiaran

1976-1978 igarobide eta zalantza garaia izan zen. Aldi horretan Eusko Ikaskuntzaren berregeneratze eta biziberritzeari ekin zioten. Euskal Diputazioek, egindako osoko bilkuretara, berriro beren laguntza azaldu zioten. 1918ko helburu berak zituen Elkartearen bidaldi berriaren bultzatzaileak izan ziren Agustin Zumalabe eta Jose Migel Barandiaran. Oñatiko Unibertsitatean 1978ko irailean antolaturiko Batzar Nagusian, Jose Migel Barandiaranek emandako inaugurazio hitzaldian

Eusko Ikaskuntzaren lehentasunezko helburua azaldu zuen: *“Bainan oroi behar degu, oraingo mundu hau ez dala guda-aurrekoa bezala. Orain, teknikak, erainkinak, nagusialdeak, lantegiak eta mila eratako estugarriak edo erasoak darabilela gizaki bakoitza aizeak orbela bezala, baina geldiar gabeko igitze hontan ere zenbait gauza beti dirauten dutenak badirala eta berak oinarritzat hartu beharra ezagutu. Oinarri edo egikuntza hortatik aurrera jo behar, bada. Eta Gure Eusko Ikaskuntzak hala behar du izan: Ikerketa oinarritzat darabilen elkarte”.*

Unibertsitate mailako erakundeen sorrera, iraganeko lehentasunezko helburuetariko bat, errealtate zen. J. M. Barandiaranek berak Nafarroako Unibertsitatean eman zituen klaseak 1962tik 1972ra. Intelektualen sektore garrantzitsu batentzat, unibertsitatea ikertzaile eta intelektualetan premiak betetzera zetorren erabat. Gizarte errealtatearen ikuspegi jakobinoaren arabera, unibertsitatean ez dagoenak ez du balio akademiarentzat.

Nolanahi, inork ez du zalantzan jartzen unibertsitateek bizi duten krisia eta Ilustrazioaren denborarekiko antzekotasunak ager daitezke. XVIII. mendeko unibertsitateak iragana irudikatzen zuen, alegia errepikapenean eta konformismoan finkaturiko gizarterako, pertsona prestatuak sortzeko konpromezua bere gain hartua zuena (abokatuak eta elizgizonak) eta berrikuntsak eta aldaketak arrotz zitzaizkion. Aitzitik, partikularren taldeek finantzaturiko “Seminarioek” edo ikastetxeek, Herriaren Adiskideen zientzia elkarte edo akademiatan antolatuturik zeudeneak, modernitate berriaren kutsua erakusten zuten, ikerketaren aurrerapena eta abangoardiaren irudia, kultura humanistikoaren eta teknika berrien aplikazioaren sintesia ziren, zientzia aplikatuen garapena zela bide. Ondorioz, gizartearen kudeatzaile berrien prestakuntza molde berri horretako erakundeetan lortzen ohi zen, eta ez unibertsitate tradizionaletan, zeren eta haiek agertzen baitzuten gizadiaren aurrerapen eta hobekuntzaren aldeko konpromezua.

Egun ere, harriturik, dilema beraren aurrean aurkitzen gara. Izan ere, ikerketa institutu aurreratuak Unibertsitateetatik at edo horien osagai gisa hazten ari diren modalitateak dira. Zentro edo institutu teknologikoak, konpainia handien ikerketa departamentuak berrikuntza aplikatuaren eta sare teorikoaren punta-puntan daude. Ematen du gizartearen heziketa maila orokorra goratzea dela Unibertsitatearen eginkizun soila, inertzia nagusien erreproduzio sozial ordenatua bermatzeko helburuarekin.

Errealtate berri horren aurrean, unibertsitateko erakundeek euskal gizartearen paisajea tartekatzea lortu dutelarik, Eusko Ikaskuntza bezalako zientzia erakundeek esanahi berria hartzen dute. Zehazki, Eusko Ikaskuntzak trantsizio berri honetan ikerkuntza aurreratuen zentroa sortzeko aukera du, bereziki arte, humanitate eta gizarte zientzien alorrean, bai eta akademia gisako bat eratzeko ere, kontzeptuaren jatorrizko adieran. Gainera, haren egitura malgu eta irazkorra unibertsitate egiturei atxikiak ez diren



Oñati, 1978.09.17. Eusko Ikaskuntzako Bazkideen Batzar Nagusia. Jose Miguel Barandiaran, Agustín Zumalaberren eta Jose M^o Agirrebaltzagerekin.

Eusko-Jakintza

REVUE
D'ETUDES BASQUES


REVISTA
DE ESTUDIOS VASCOS

ARKIBIDEA

Page

LAFON. — Sur les suffices casuels -ti et -tik	141
OLMARTHEA. — Mintzaira bakarra, giza-enda bakarra	151
SAINT-PIERRE. — Les noms de parenté	161
BAEHR. — Danskisch und Iberisch	167
JARATE. — Apuntes de G. de Humboldt sobre los Garat	195
ELSO. — Deux collaborateurs de « Eusko-Jakintza » à l'honneur	206
TCHEVERKY-AINCHART. — Une vallée de Navarre au XVIII ^e siècle	208
HILBAO. — La cultura tradicional en Lope García de Salazar	229
MESCHERMAKER. — La frontière du Labourd et les enclaves du Bascon	285
DE ARANZADI ; J.-M. DE BARANDIARAN ; Exploración de la cueva de Urtiaga. Con un estudio de los cráneos prehistóricos de Vasconia comparados entre sí	285
LAGRAFIA. — P. LAPITTE : <i>Jesu-Kristo gure Jaunaren Ebanjelioa</i> (L. Léon). — P. L. : <i>De la France au Béarn et au Pays Basque</i> (A. Elchart). — P. L. : <i>Gure Aimanaka 1948</i> . — P. L. : <i>Régiments et Statuts de la Fédération Française de Poésie Basque</i> . — P. L. : <i>Le poète ferment d'unité</i> (E. Salaberri). — P. L. : <i>Récits et légendes basques</i> (Gil Reicher). — J. GALANDEZ : <i>Don Fray Juan de Zumarraga</i> (J. García Icañabalota).	331
"ISTAS RECIBIDAS	341

GERNIKA" EVSKO IKASKUNTZA'en L' k ARGITARAZIA



Revista periódica. Órgano del
INSTITUTO VASCO DE EXTENSION CULTURAL


GERNIKA

CIENCIAS, BELLAS ARTES,
HISTORIA, ETNOGRAFIA, ECONOMIA SOCIAL,
POLITICA, HUMANISMO.

SUMARIO

Eup, jaunak! Emen gera gu ere, por Pitakab'ar Berrapel.
Eman de zahizazu, por Rafael Pinava.
El ruble, árbol de vida y de libertad, por Juan Thalamas.
Gernika...!, por Elizagirre'tar J.
El genio de un pueblo: la lengua, por Ortiz.
La Edad Media a la vista, por Julio de Eluol.
Prehistoria vasca: nuevas investigaciones, por José Miguel de Barandiarán.
El cuarto centenario de Bernard Dechepare, por Georges Lacombe.
La música folklórica vasca, por Isidoro de Fajardo.
Octavo aniversario de la destrucción de Gernika.
Conferencias del Instituto GERNIKA, por Ezandurra.
W. Churchill en el País Vasco.
Desde mi sacaño: Diálogo con D. Procopio.
La Pastoral del Primado, por Aizbar.

Número 1 Octubre-Noviembre 1948



Erbesteratu ziren Eusko Ikaskuntzako bazkideak berehala Iparraldean erakudeak eta aldizkariak sortu zituzten 1918ko erronkari jarraipena emon nahian.

profesionalen eta ikertzaileen bateratzea eta elkarlanean aritzea bideratzen du, bai eta unibertsitate desberdinetako kideen arteko lankidetzara ere.

Eusko Ikaskuntzak, J. M. Barandiaranen lehendakari aldian, bere ospe ona sendotu zuen erakunde ingurunean. Materialki, antolakuntza egitura bat sortu zen ezerezetik. Borondatezko bazkideak 2.000ko kopurura iritsi ziren. Ikerketa sailak eta zientziaren hedapenerako aldizkariak sortu ziren boluntarismo handiz. Guztiarekin ere, pasiboa eta gero eta marjinalagoa gertatu zen kudeatzaile politiko berrien laguntza. Baina Eusko Ikaskuntzako kideek ere ez zuten egitasmo erakarle eta koherente bat aurkezten jakin elkarte euskal ikerketa zentro bilakatu ahal izateko.

1991-1992: Euren berrikuntza eta birkokaera euskal gizartearen baitan: Gregorio Monreal

Jose Migel Barandiaran hil ondoren, gogoetaldi bat ireki zen eta lehendakari berria hautatu behar izan zen. Gregorio Monreal Dk., EHUko errektore ohiak aurkezturiko egitasmoak bazkideen laguntza zabala bildu zuen beste aukeren aurrean. Orduan abiatutako trantsizioan, lehen buruan Elk leku bat konkistatu behar zuen euskal gizarte modernoan. Zalantzarik gabe, bazkide aktiboetako talde ugari baten ekimenak inertzia hura aldarazten lagundu zuen, maiz, paradoxikoa bada ere, Batzorde Iraunkorren ordezkaturiko euskal erakunde publikoen kudeatzaile politikoek azaldu jarreraren aurka. 90. eta hamarraldian, nabarmendu beharra dago zientzia sailerako eta gestio organoetako buruan unibertsitate irakasleak aurkitzea. Eusko Ikaskuntzari buruzko memorandumak (1993ko Iraila) gogo-oinarriak eta lan egitasmo berriak laburbiltzen ditu.

Memorandum hartako atalak lehendakari berriaren programan oinarriturik zeuden:

1. Eguno errealitate organikoa.
2. Aldaketa soziokulturala Euskal Herrian.
3. Euren funtzioak eta ekintzak Euskal Herriko esparru soziokultural berrian:

- Zientzia komunitatearen artikulazioa - Eusko ikaskuntzen maila igotzea - Kultura zabalkunde - Euskal kultura nazioarteko bihurtzea - Ikerketa egin behar da Eusko Ikaskuntzaren baitan?

4. Elren arazoak: Institutuzionalizazioa eta erreforma

- Elren jardueren finantzazioa.

Gregorio Monrealen agintaldian, Eusko Ikaskuntza sendotu egin da zientzia elkarte moduan, jarduera-egitasmo zehatz bat duela:

- Ikerketa proiektuen kopurua nabarmenkiro hazi da.

- 1993tik Eusko Ikaskuntzen Kongresua biurteko maiztasunez arautu da.

- Hitzarmenak sinatu dira Euskal Herriko unibertsitateekin.


- Euskal kultura nazioarteko egin da halako eran non Elk Lankidetzeta eta Ikerketa Hitzarmena kudeatzen duen Oxfordeko Unibertsitatearekin.

- Komunikazio kanal berriek artikulatzen dute Elko bazkideen jarduera.

- Bazkideen kopurua nabarmenki gehitu da, egun 3.000 inguru direlarik.

- Elren ezagutza lortu da erakunde publikoen aldetik eta hori elkarlanerako hitzarmen berrietan gauzatu da. Halaber, Espainiako Gobernuako Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren laguntza sendotu da.

- Zientzia bikaintasunari eskainitako sariak sortu dira.



Oñati, 1993.09.17. Elren sorreraren 75. urteurreneko ekitaldia. Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria eta Nafarroako Gobernuburua; Eusko Legebiltzarreko eta Nafarroako Foru Parlamentuko Lehendakariak; Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Ahaldu Nagusiak; Eusko Ikaskuntzako Lehendakaria; Iruñeko Artzapezpikua; Euskal Herriko Unibertsitateetako Errektoreak; Euskal Herriko Merkataritza Ganberetako Lehendakariak.

Etorkizunerako programak

Informazioaren eta komunikazioaren gizartean Eusko Ikaskuntzak bere printzipioetariko biri leial izaten jarraitzen du beti ere: ikerketa eta emaitzen zabalkundea.

Bestalde, mundializazioaren prozesuan eusko ikasketez arduratzen den zientzia komunitate baten aurrean, Eusko Ikaskuntzak artikulazioaren erreferentzia eskaintzen du. Baina estatutuetan aurrikusitakoari jarraituz, kultura unibertsaleko elementuen harrera eta zabalkundea Euskal Herrian zehar egiteko konpromisoa hartu du Eusko Ikaskuntzak.

Ikerketa programak

1.- Zientzia sailek programa indibidualak eta taldekoak burutzen dituzte. Baina badira programa orokorrakoak. Epe ertaineko ikertzaile kidego propio bat osatzea da egun dituen erronketariko bat, modu horretara zientzia azpiegiturako programa garrantzitsuak burutzeko.

2.- Graduazio ondoko bikaintasun programak: "Jakitez, Eusko Ikaskuntzak eta zientzia kultura sustatzeko espezialista unibertsitarioaren Diploma" (250 ordu). Disziplinarterako programa. 1996tik 100 unibertsitate irakasle baino gehiago ari dira lanean eusko ikaskuntzen inguruko programa honetan. Irakasleek euskal intelektualen multzo bat pertsonalki ezagutu ahal dute eta ikastaroaren amaieran ikerketa bat burutzen dute, horrek ikertzaile gisa euskal errealitate soziala hobeto ezagutzeko gaitzen dituelarik.

"Lurraldearen Antolakuntza eta Kudeaketa" graduazio ondoko beste ikastaro bat da. Azkenik, Internet bidez "on line" eskainitako ikastaro bi nabarmentzen dira: Ingurugiro Zuzenbidea, MIDA, eta Nazioarteko Merkataritza, MICI. Ikastaro hauek EHUren babesa dute eta bere ikastaro propiozat eskaintzen ditu. Saio honek ikusmuga berriak zabaltzen ditu Eusko Ikaskuntzaren jardura eta perspektibentzat.

3.- Komunikazioa. Asmoz ta Jakitez informazio hilabetekaria da. Hiru hilabeteoro argitalpen berri ematen duen eranskina argitaratzen da. Zientzia sailek beren agerkaria dute eta *Revista Internacional de los Estudios Vascos* aldizkaria Elkartearen agergarri bilakatzen da.

Aldizkari multzo horren argitalpenak aurrerapauso bat dakar zientzia komunitatearen eta eusko ikaskuntzen ikerketaren sozializazioan: 5 zientzia eta ikerketa sail eta nazioarteko parametroen arabera beste hainbeste homologaturiko aldizkari.

4.- Kultura zabalkundea: Elk hitzarmenak sinatu ditu Euskal Herriko udal garrantzitsuenekin bere kultura zabalkundeko politikan lankidetzan aritzeko.

5.- Eusko Ikaskuntzen Kongresuek disziplinarterkotasunaren bidea jarraitu dute. Azken Kongresuetan heziketaren transmisio kulturalarekin zerikusia duten gaiak aztertu dira, bai eta zientzia eta teknologia eta informazioaren gizartearekin zerikusia duten alderdiak ere.

Programa berria sendotzeaz gainera, erronkak agertzen dituen lan alor berri bati ekin diogu, hala nola:

1.- Mediateka: 1997an sortua "Eusko Ikaskuntza birtual" berriaren eraikuntzan laguntzeko eta mundu mailako euskal zientzia komunitatearen zentro eta erreferentzia izateko.

Elk kulturaz eta euskal zientzia komunitateaz diharduten dokumentazio baseen inguruko dokumentazio funtsak eskaintzen ditu "on line".

2.- Gaurko Historiaren Dokumentazio Zentroa. Elk egungo historiako iturri ugari dauzka, historia horren protagonistak utziak: Manuel Irujo Funtsa, Angel Apraiz Funtsa, Manuel Lekuona Funtsa eta beste. Baina gainera, dokumentazio aktibo garrantzitsua gordetzen du, eta eguneratu egiten gaurko funtsen euskal artxibo nazionala falta dugun koiuntura honetan.

3.- Zientzia eta akademia elkarte guztiak ezagupenen azpiegitura bat eraiki nahi izaten dute abaldu gogo duten kulturaren iturri gisa. Enciclopedia Auñamendi, Enciclopedia General del País

Vasco delakoaren eguneratze proiektua, Eusko Ikaskuntzak dituen konpromezu handienetariko bat da. Liburuki guztiak digitalizatu dira on line kontsultarako. Funts honek 1934a arte Eusko Ikaskuntzako "bulego eta biblioteca buru" izan zen eta Enciclopedia Auñamendiren sortzailea den Bernardo Estornés Lasaren izena darama, eta 25.000 orri eta 50.000 irudi baino gehiago dauzka.

4.- Hitzarmen berriak eta bereziki irakasle bisitarietzako bekak, Oxfordeko Unibertsitatearekin ezarritako ereduaren arabera.

Labur, eusko ikaskuntzen ikertzaileen erakundea da Eusko Ikaskuntza eta 1918an ezarritako helburuek, unibertsitate eta ikerketa institutuen mapa berriari dagokionez, gaurkotasan osoa gorde dute eta hori egiaztatzeko Elk 90. eta hamarkadan izan duen garapen izugarria ikusi besterik ez da. Mundializazioak, paradoxa bada ere, tokiko sistemak antolaketa eta komunikazio sare sendoz indartzea eskatzen du. Eusko Ikaskuntza, gaur egun, aukera bat da ikertzaile gazteentzat, bai eta ikertzaileen emaitzak zientzia komunitatean zabaltzen laguntzen duen erakundea ere.

Euskal zientzia komunitatearen parte bat artikulatzen lagundu duen erakunde honen zuzendaritza postuetan izanik, beraren garapena aldeztu duten pertsonen biografiak zabaltzeko asmoz burutu da hiztegi biografiko hau.

HIZTEGI BIOGRAFIKOAREN IRIZPIDE TEORIKOAK ETA METODOLOGIKOAK

Euskal zientzia tradizioan eskas ditugu hiztegi biografiko zehatzak. XIX. mendearen amaieran *Euskal Erria* aldizkariak modu sistematikoz euskal pertsonalitateen biografiak eta ohar nekrologikoak argitaratu zituen. Geroztik, hala ere, generoa ez da ezer landu ia eta erakunde publikoek zein pribatuek ez dute artxibo biografikoen produkzioa sustatu. 1968an B. Estornés Lasak Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco delakoa kaleratzean, euskaldunen hiztegi biografikoen lehen saio orokorra abiarazi zuen. Geroago, jarduera publiko, ordezkari eta edo gestio jarduera jakin batekin zerikusia duten pertsona ospetsuen hiztegi biografikoak eta prosopografiak argitaratu dira. Hala, esate baterako, antropologoen komunitateari buruzko bat argitaratu zuen Anton Erkorekak².

Eusko Ikaskuntzaren hiztegiak, orobat, giza komunitate berezi bat hartzen du kontuan, sorkuntza eta zientzia ikerketarekin loturikoa alegia. Biografiatuen hautaketak Batzorde Iraunkorreko kide guztiak hartzen ditu, hau da, inoiz Elkarteko zuzendaritzan arduradun karguren bat izan duten kideen multzoa: lehendakaria, lurraldeko lehendakariordeak, Batzorde Eragileko

2. ERKOREKA A., *Euskal antropologoak, etnologoak eta etnografoak gaur*. Donostia, 1988. 2 Vol.

S. GRANJEL L., *Diccionario histórico de médicos vascos*. Bilbo, 1993.

AGIRREAZKUENAGA J. SERRANO, S., URQUIJO J. R. y URQUIJO M., *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia. (1808-1876)*. Gasteiz, 1993.

AGIRREAZKUENAGA J. (Dir.) *Diccionario biográfico de los Diputados generales burócratas y patricios de Bizkaia. (1800-1876)*. Bilbo, 1995.

GARCIA SANZ A., LAYANA C., MARTINEZ E., PEREZ M., *Diccionario biográfico de los diputados forales de Navarra. (1931-1984) y de los secretarios de la Diputación (1834-1984)*. Iruñea, 1995.

GARCIA SANZ A., *Diccionario biográfico de los Diputados Forales de Navarra. (1840-1931)* Iruñea, 1996.

Halaber, aipatzekoak dira literatur idazleen taldea aztertzen duten obrak, zeren eta halakoetan profil biografikoa enfasi bereziz aztertzen baita, hala nola euskal idazleen taldea aztertzen duen J.M. Torrealdairen *Euskal Kultura Gaur* liburua (1997).

karguak, zientzia sailtako lehendakariak, bai eta funtzionamenduaren organigramako kargu burokratiko gailenak, hots, biografiatuen zerrendan administrazio erantzukizun handiko karguak sartu ditugu, hala nola Bernardo Estornes, 1936a arte bulego eta biblioteka burua, edo egungo idazkari teknikoak eta gerentea. Azkenik, sartu egin ditugu baita ere Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkariaren (RIEV) zuzendariak, aldizkari hori Elren agergerri zelako eta delako. Kanpoan geratu dira Batzorde Iraunkorreen Diputazioen edo euskal gizarteko bestelako organismo publiko edo pribatuen ordezkari zirenak edo direnak, eta bai bikaintasun batzordeko kideak ere, nahiz eta guzti haien zerrenda osoa eranskin gisa ematen dugun. Batzorde Iraunkorra Eusko Ikaskuntzen gobernu organo gorenaren da ondorengo ondoko bi Batzar Nagusiren artean.

Biografia osatzerakoan, lehenetsuna eman zaio Eusko Ikaskuntzarekin zerikusia duen jardueraren atalari eta hori nabarmendu da biografiatuak izan litzakeen beste perfilen aldean.

Eusko Ikaskuntzaren historian bi aldi ongi bereziak daude: lehena, 1918-1936 bitartekoa, eta bigarrena, 1978-1998 bitartekoa. Biografiatan bi antolatze modu bereiz daitezke: hildako pertsonen dagokiena, beraz, nagusiki lehen aldian jardun zutenena, eta bigarren aldiari dagokiona. Lehen taldekoentzat, Agustín Gómez eta Juan Antonio Morales ikertzaileek lehen eta bigarren iturriak erabili dituzte haien biografiak egiteko. Lanaren eskema honako atal hauen arabera burutu da: familiarartekoa, prestakuntza intelektuala, garapen profesionala, produkzio intelektuala, jardueraren Eusko Ikaskuntzan eta gainerako merezimenduak. Hildako pertsonaien biografia bakoitzak egilearen sinadura dakar eta azken atala iturri eta bibliografiari dagokie. Eusko Ikaskuntzaren historiari buruz Idoia Estornes doktoreak argitaratu ikerketak, biografiatu bakoitzaren iturriak eta bibliografia atalak erakusten duenez, ezinbesteko iturrietarik bat izan da Elrekiko atalari dagokion guztia zehaztu ahal izateko. Bestalde, Eusko Ikaskuntzako Boletinek eta Eusko Ikaskuntzen Kongresuek dauzkaten informazio guztiak hustu dira. Jakina, biografiatu ospetsu garrantzitsuenetarik bakoitzak biografia zabalagoa eskatzen du, mundu akademiko eta ideologiko oso desberdinetatik datoz eta. Horregatik irizpideak batzen saiatu gara biografia partikularren ikuspegi koherentea ematearren. Prosopografia saio honen helburu nagusietarik bat zera izan da, ilun edo alboratuta geratu arren, Eusko Ikaskuntzaren akademia eta zientzia komunitatea moldatzerakoan ekarpen ohargarri eta garrantzitsua egin duten askoren nortasuna nabarmentzea. Modu horretara, geroagoko ikerketa lanerako abiapuntu da hiztegi hau, bai eta ezagupenen transmisio bide ere, hala bestelako hiztegiak nola izaera orokorragoko entziklopedientzat.

Bigarren taldeko biografiatan, hau da, garai hurbilagokoetan, informazio iturri nagusia protagonistek berek adierazitako datuetan oinarritu da. Bidalitako galdeketeri erantzun dioten 75 pertsonen eskerrak bihurtu nahi dizkiegu. Ahozko iturriak ezinbestekoak gertatu dira eta zenbait kasutan lehen aldiko pertsonen biografiak egiteko ere balio izan dute. Hori da, esaterako, Aniceto Duoren kasua eta Gonzalo Duok jakinarazitako ahozko informazioa.

Ekarritako material originala interes handienekoa da, eta original guztiek Eusko Ikaskuntzako bazkideen artxibo biografikoaren dokumentuen lehen funtsa osatuko dute, Eusko Ikaskuntzaren Gaurko Historiaren Dokumentazio Zentroko beste atal bat izango dena. Bistan denez, bilduriko informazio originalak, gehienetan, argitaratuak baino luzeagoak dira.

Moldaturiko biografiek ondoko atalak agertzen dituzte:

- Helbidea
- Curriculum akademiko profesionala
- Jardueraren Eusko Ikaskuntzan
- Argitalpenak

Obra honen bidez, Eusko Ikaskuntzarena bezain proiektu handizale batean pertsona hauek izan duten eragina dagokien neurrian aintzat hartzea nahiko nuke. Hala berean, obra honek pro-

grama berri bat lantzen hasteko balio beharko luke: Eusko Ikaskuntzako artxibo biografikoa eta, hori bideratuko balitz, Euskal Herriko Hiztegi Biografikoa. Hala beraz, irakurleek egingo dizkiguten zuzenketak, iradokizunak eta kritikak, proiektu orokorrari egiten zaion laguntza gisa hartuko dira, ezin alboratua baitugu disziplinaz gaindiko genero honen –biografia eta prosopografiaren– zailtasuna.

Azkenik, esker onen atalean, inkestari erantzun ziotenen lankidetzaz baliotsua berriro azpimarratu beharrean gaude, bai eta Elkartearen langileek ekarritako laguntza, bereziki Mediatekako Arantza Cuesta, Jose Angel Ormazabal, Eva Nieto, Rosa Mari Atutxa eta Olatz Zumalabek.

Joseba Agirreazkuenaga

Gaur egungo Historia Katedraduna (EHU)

eta Eusko Ikaskuntzako Gaurko Historiaren

Dokumentazio Zentroko zuzendaritza batzordeko kidea